



MUNDUA

ZAD: borroka baten lekukotasunetarik idatzitako liburua

 INPRIMATU
 BIDALI

Iñaki Etxeleku Thikoipek (Biarritz, 1977) "ZAD: bizi dutenen ahotik" liburua idatzi du. Britainia hegoaldeko Notre-Dame-des-Landes baserri eremuan azken urteetan aireportuaren kontrako borroka eta beste jendarte eredu baten eraikuntzaren lekuko izan da Etxeleku. Bertako jendeei ahotsa eman die, esperientzia horri argazki bat atera nahian.

KAZETA | 2018/11/27 10:49 | 0 IRUZKIN EGUNERATUA: 2027/11/20 00:00




Azaroaren 19an Txalaparta eta Gatzuzain argitaletxeen eskutik aurkeztu zen Iñaki Etxelekuren liburua. ©Isabelle / iStockphoto.com

Azken urteotan aski ezaguna egin da Notre-Dame-des-Landes Britainiako udalerria. ZAD gisa zabaldu dute bertako borroka. Hastapenean, aireportua egiteko asmoari jarraikiz, Estatu frantsesak azpiegitura handietarako hautatu lekuentzako izendapena zen: "Zone d'Aménagement Différé (Gerora antolatzeke eremua). Alta, aireportuaren kontrako mugimenduak izena egokitu eta "Zona À Défendre" (Defendatu beharreko eremua) izena eman zion.

Azaroaren 19an Txalaparta eta Gatzuzain argitaletxeen eskutik aurkeztu zen "ZAD: bizi dutenen ahotik" liburua. Orotara 300 hektarea erabiltzeraino iritsi den mugimendu horretako hainbat pertsonekin izan da Iñaki Etxeleku Thikoipe biarritzarra. ZAD egin eta bizi duten sei pertsonari eman die hitza eta zenbait gai proposatu dizkie gogoetatzeko eta euren esperientziak mintzatzeko. Gai bakoitzari kapitulu bat eskaini dio, orotarar, bederatzi.

"Erabaki nuen jende ezberdina elkarrizketatzea. Ikuspegi ezberdinak gurutzatzea zen asmoa, baina zerbait gisaz, mugimendu orokorrean zinez sartua zen jendearekin", adierazi du Etxelekuk. Elkarrizketatuak adin eta ibilbide ezberdineko pertsonak dira, izan laborantza munduko sindikalismotik jinak, frantses ezker klasikoan ibilitakoak, okupa mugimendukoak edo baita lehenago militantzian ibili izan ez direnak ere.

PUBLIZITATEA



Tweets by @kazetaeus


 kazeta.eus
 @kazetaeus

Xalbador kolegioa Erasmus+ proiektuan onartu dutekazeta.naiz.eus/eu/info_kz/201...





2h


 kazeta.eus
 @kazetaeus

Euskarazko filmak ez dira zinema guzietan ematenkazeta.naiz.eus/eu/info_kz/201...



Embed

View on Twitter

IRAKURRIENA | IKUSIENA | IRUZKINDUENA

Ipar Euskal Herriko lau musika talde ikusteko parada KAZETA.EUSen

Euskarazko filmak ez dira zinema guzietan ematen

Borrokaren bilakaera

Estatu frantsesak 1967an deliberatu zuen Naonedeko aireportuaren ordeztu berri bat eraiki behar zela handik kilometro batzuetara dagoen Notre-Dames-des-Landesen. Bost urte geroago sortu zen proiektu horren kontrako lehen mugimendua. Hamarkadetan zehar gorabehera ainitz izan dituzte bai gobernuaren proiektuak, bai herritarren mugimenduak. Tokiko laborarien erresistentziak, hein handi batean lortu izan du gobernu ezberdinek gibelera egin zezaten.

2009an, haatik, beste dimentsio bat hartu zuen borroka. Laborarien deia jarraikiz, bertako etxe eta zelaiak okupatzera iritsi zen jende andana bat. Urteekin mugimendua azkartuz joan zen, batez ere 2012ko kanporaketa bortitzen testuinguruan. Aireportuaren kontrako mugimendu zabala antolatu eta azken buruan lortu zuten estatuak 2018aren hastapenean proiektua bertan behera uztea. Ez horregatik borroka guti eginik. Une biziki gogor eta zailak bizi izan direla aitortu dute beren testigantza eman duten pertsonak.

Alabaina, ZAD aireportu baten kontrako mugimendu bat baino zerbait gehiago bihurtu da denboran. Azken buruan, beste eredu bateko jendartea eta bizimoduaren aldeko mugimendu izatera iritsi baita. Sistema kapitalistatik eta merkatuaren logikatik aldentzen den eredu alternatibo hori berrehundik gora lagunek okupatzen dituzten lurretan gauzatzen ari da egun.

Ezohiko ezaugarriak

“2012tik ez zuen estatuaren egitura bakar batek, ez polizia bakar batek zangorik sartu han. Erran nahi du, bospasei urtez. Epe biziki luzea da neurri horretako eremu batean, eta jende kopuru horrekin”, azaldu du Etxelekuk. “Beste jendarte eredu baten esperimendatzeko parada eskaintzen dituzten baldintzak barneratu nahi nituen. Jakin nahi nuen utopia horretatik zer zen egiazki ibiltzen, zertan lortzen zen, non ziren zailtasunak, porrotak, mugak”, gaineratu du liburuaren egileak.

ZAD-en, aireportuaren kontrako borrokaekin babestu nahi izan den eremua jendarte eredu ezberdin bat eraikitzeko esperimendazio bihurtu da. Auzolanean eta autogestioan tresna ezberdinak sortu dituzte: janaria ekoizteko, etxegintza tailerrak, burdin ola, liburutegia, irratia, kazeta eta abar.

Okupaturiko lur eremu hartan lanarekiko ikuspegia, pertsonen arteko harremanak eta finean, eguneroko bizia begiratzeko moldea bestelakoa da. Baita ere jendartea antolatze eta erabakiak hartzeko garaian. Biltzarrak, lan taldeak edo gatazkei aterabideak emateko tresnak sortu dituzte. Batzuetan asmatzen dute, besteetan huts egin, baina ez diote autokritikari ihes egiten.

Bistan da bertan bizi direnen motibazioak, ibilbideak eta ikuspegiak ez direla berdinak. Eztabaida biziak izaten dituzte eta liburuan mintzatzen diren pertsonak naturaltasunez kontatzen dituzte. ZAD-eko aniztasunaren lekukotasunak dira.

Xalbador kolegioa Erasmus+ proiektuan onartu dute

Korrikaren kantua eta bideoklipa aurkeztu dituzte



Erregistratu zaitez

Iruzkina egiteko erabiltzaile erregistratua izan behar duzu.

Nire kontuan sartu

Erregistratu

